

ZINEMA. Gaur emango dituzte film saridunen izenak, Beldurrezko Astearen azkenean

Lloyd Kauffman: «Beldurrezko filmak baino zitalagoa da errealitatea»

EEBBetako Troma estudioetako arduradunak herri horretako zinemagintza gogor salatu du

A.M. | DONOSTIA

Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Zinema Astearen azken egunean oraindik ere izango du ikusleak beldurraz gozatzeko aukera. Japongoak eta Europakoak izango dira azken hiru filmak, horien artean Inoshiro Hondaren *Gojira* klasikoa, *Godzilla* munstroarekin egin diren hamaika filmetan lehena. Principen azken saioak eskaintzen ari diren bitartean jakinaraziko dituzte film laburren irabazleak eta sail ofizialean film luzeetan zein izan den publikoarentzat onena. Hain zuzen, hautatutako film laburrak eskainiko dituzte arratsaldean Antzoki Zaharrean, eta ondoren, itxiera ekitaldia izango da Pitofen *Vidocq* filmaren emanaldiarekin. Francoise Vidocqi eskertu egingo dio gaur zaletuak polizia izan baino lehen gaizkile izatea. Alkate onenak udaltzain izandakoak direla baieztatu nahi da film honetan, eta polizia onenak gaizkile izan direnak direla, hain zuzen. Foi-letoi antza duen istorio honek sari ugari izan zituen Sitgesko zinemaldian. Bideo digitalean grabaturik dago, eta fantasiako zineman frantziarrak, azkenaldian buru-belarri dabiltzala berresten du.

Zinema aretoetara azken filmak iristen ari diren bezalaxe, horien egileen azken bisitak hartzen ari da zinemaldia. Atzo Lloyd Kauffman *Citizen Toxie: The Toxic Avenger IV* filmeko zuzendaria izan zen Donostian. Asteazkenean eskaini zuten mendekatzaile ezagunaren laugarren bertsioa, eta mendekatzaileak jada nahikoa istorio izan baditu ere, arrakasta izan zuen zaletuen artean. Bi mendekatzailearekin dator gainera



JAVIER ECHEZARRETA / EFE

Beldurrezko zinematik azken eguna izango du gaur.

laugarren bertsioa, eta Kauffmanen arabera, «eman dezakeena ikusita bosgarrena ere etor daiteke».

Errealitatea iturri nagusi

Troma Estatu Batuetako estudio independente zaharrenaren arduraduna da Kauffman Michael, Herzekin batera, eta filmaz baino gehiago Estatu Ba-

tuetako zinemaz hitz egin zuen atzo, eta hari loturik herri horretako egoeraz. «Zinemagileon imajinazioa baino zitalagoak dira Estatu Batuetan egunero kaleratzen diren berriak». Beldurrezko zinema egiten dutenen irudi «txartua» fama hutsa dela esan zuen, eta «askotan etika beste edozein zinemagilek edo politikok baino gehiago

GAURKO EGITARAUA

ANTZOKI ZAHARRA

17:00: Die Gottesanbeterin. Paul Harather

19:45: Amaiera ekitaldia. Film labur irabazleen emanaldia.

Vidocq. Pitof

PRINCIPE

17:30: Kurutta Ippeiji. Teinosuke Kinugasa

19:45: Gojira. Inoshiro Honda

Peeping Tom. Michael Powell

LLOYD KAUFFMAN

Troma estudioetako arduraduna

«George Bushek eta talibanek beldurrezko filmak ikusiko balituzte errealitatea ez litzateke horren krudela izango»

zaintzen» dutela. «Trona estudioak amateurak dira irailaren 11n izandako atentatuekin konparatzen baditugu, eta gehiago esango nuke. Komunikabideetan agertzen diren gertaerak dira gidoigileen inspirazio iturri handiena».

Sutsu defenditu zuen «emozio fuertek dituen zinema edo beste edozein arte jardura», horien bitartez errealitatea horren krudela izan ez dadin lortzen baita. «Ezbaian jartzen dut talibanek edo George Bushek inoiz beldurrezko film bat ikusi dutenik, ikusi izan balute errealitatea ez bailitzateke horren krudela izango».

Estatu Batuetako zinemagintzaz, berriaz, sekulakoak esan zituen estatubatuarrek. «Kratsa dario. Estudio handietako eskupulo gabeen esku dago film-aukeraketa, eta inoiz ulertu ez dudana etika dago Estatu Batuetan gure zinemagintza zentsuratzeko orduan».

ANTZERKIA

Alfonso Sastre kultur elkarteak «liskarra» bilatuko du Asketopaketetan

Ainara Gorostizu | DONOSTIA

Alfonso Sastre Kultur Elkartek, ASKEk, «antzerki munduko aktore, zuzendari eta egileen arteko eztabaidan» sakontzeko, *Liskarra entseguan* izenburupean antzerkiaren inguruan hausnartzeko, Asketopaketak antolatu ditu.


Datorren asteko ekitaldian, mahai-inguru batean, antzerkiaren munduko profesionalak elkarren aurrean jarriko, antzezlanaren prestaketari heltzerakoan jarrera ezberdina, helburuak eta asmoak nondik nora bideratzen dituzten argituko dute.

Sastreren esanetan «entseguan, ez da liskar handirik egoten, baina askotan tentsioa oso nabaria da, nahiz eta gizalegeak ezkutuan uzten duen norgehiagoka». Asketopaketek liskar hori azaleratuko dute.

Asteartetik ostegunera egingo dira topaketak, Koldo Mitxelena. Eztabaidaren ondoren, aktore bikote batek bere antzez-lana eskainiko du.

Hizlari liskarzaleak

Sastreren esanetan, hausnarketa hauetara gonbidatu diren hizlariak «oso liskarzaleak» dira. Horien artean daude, Sastre bera eta Alberto Miralles, antzerkigileak, Carlos Panera eta Paco Obregon zuzendariak, Maite Agirre eta Teresa Calo, aktoreak, besteak beste. «Oso dibertigarria izango da liskarra sortzen bada, hizlariok ahoan legarrik gabe hitz egiten baitute. Asteartetik ostegunera egingo dira topaketak, 18:30ean, Koldo Mitxelena.



Bihar

▼ **Liburu aurrerapena**

**Aurelia Arkotxaren
Septentrio**

Egunkaria

